

MUNDAKA. Zerbitzuaren gestinoa eroateko enpresen kontratazinorako epea zabalik dago

Iratxe Astuy

Islakaleko kiroldegia alban aterpetxea egiten dabilz. Beharrrak pentsau daben denpora gehiagoan luzatu egin badira be, Udalak datorren hilerako aterpetxea amaituta egotea espero dau. «Udarako martxan ipintea gustauko litzaiguke», esan dau Iñaki Lopez Mundakako udal zinegotziak.

Islakaleko aterpetxeak 36 lagun hartzeko lekua eukiko dau. Izan be, aterpetxeak 150 metro koadro daukaz, eta literadun logelak hiru espazioetan banatu-ko dabez. Logela horreei jago-kezan komunak be izango dira, bi hain zuzen be. Horrezaz gainera, elbarrituentzako beste logela bat ipiniko dabe, barruan bainugelea eta guzti daukiela.

Aterpetxea martxan ipinten dabenerako, derrigorrezko ordutegia bete beharko dabe bisitariak. Izan be, 23:00etatik 08:00etara isiltasuna nagusitu beharko da logeletan. Aterpetxe-ko gehienezko egonaldia, bestalde, 30 egunekoa izango da.

Tabernea be bai

Aterpetxeagaz batera, tabernea eta jatetxea be egiten dabilz Islakalen. «Aterpetxera datozenek berton jateko aukerea eukiko dabe», dinoe Udalekoek.

Kiroldegia alban dagoenez, aterpetxean geratzen diranei kirol edo astialdirako beste ekizetan parte hartzeko aukerea emongo jake. «Taldeei proposatuko jakezan ekintzak Mundaka eta Urdaibai Biosfera Erreserbaren ingurunea eukiko dabe oinarri. Kiroldegiko orduetatik kanpora be, bertoko instalazioak erabili ahal izan-



IRATXE ASTUY

Islakaleko aterpetxean beharrean dabilz oraindino, baina datorren hilerako amaitzea gura dabe.

Islakaleko aterpetxea udarako zabalduko dabe

Hogeita hamasei lagun hartzeko lekua egingo dabe bertan

go dabez aterpetxe-koek», azpimarratu dabe aterpetxe-ko arau zerrendan. Holan, kiroldegiko pista, gimnasioa eta masaiak hartzeko gelea be aterpetxearen beste zerbitzu bat lez erabili ahal izango dira ordu jakin batzuetan.

Mundakako Udalak Islakaleko aterpetxearen hustuketea eta gestinoa egiteko enpresen kontratazinorako beharrezko oinarriak argitarau dauz boleti-

nean. Udalak lehiaketearen proseduraz emongo dau zerbitzu hori. Eskariak egiteko epea garagarriaren bigarren asterarte dago zabalik. Kontratua sinatu eta hurrengo egunean aterpetxea martxan hasiko litzake, gero.

Islakaleko aterpetxearen proiektua aurkezterako orduan, gestinoaren ikerketea aurkeztu behar da, eta horrezaz gainera, egitamuaren helburuak eta

aterpetxean izango diran ekintzen programea.

Mundakako Udal ordezkariak egin dabez aterpetxearen gestinoaren ganeko lehenengo balorazioen arabera, «aterpetxetik irabazi handiak atara leikez, ze udatik kanpora, negu partean be surflariak izaten dira herrian, egun batzuk igaroteko lekua topetan», ziurtatu dau Iñaki Lopez Mundakako zinegotziak.

GERNIKA-LUMO**'Ilbera' izeneko film laburra aurkeztuko dabe Aita Villasante Euskaltegikoek**

I. A.

Gaur, arratsaldeko 19:00etan, *Ilbera* izeneko film laburra estreinatuko dabe Gernikako Elai-Alai kultur aretoan. Izan be, filmaren aurkezpena, uriko Aita Villasante Udal Euskaltegiak gertatuko *Bizkaiera eta erabilpena* jardunaldien programazioaren barruan dago.

Film laburraren estreinaldiaren ostean, Santi Urrutia pelikulearen zuzendaria eta EHUko Gizarte Zientzien Fakultadeko irakasleagaz berbal- dia egingo da.

Ilbera laburra 18 minutuko filma da, eta bertan parte hartzen dauen jentea, bai antzezle bain tekniko moduan, Gernika edo hurrekoak dira. Filmean, ipuin mitologikoa kontetan da, baina «bertsino guztiz modernoan sortuz», zehaztu dabe Aita Villasante Euskaltegikoek. Izan be, antxina-ko ipuinetako baserri edo artzainen orde, espeleologo bi agertzen dira. Pertsonai femenino mitologikoa, neska, espeleologo bihurtuko dabe baita. Hiruren arteko berbal- dia bizkaieraz egiten dira, «Gernika inguruan egiten dan moduan», aurreratu dabe.

BERMEO. Mendizabal sendiak ume boliviarrak berreskuratzeko Ekintza Sozialera joko dabe**Maitane eta Andoni etxera ekarteko kanpainan 3.100 sinadura batu dabez**

IRATXE ASTUY

Boliviako umeak kendu eutsiezan Laka-Mendizabal familiaren aldeko kanpainean, 3.100 sinadura batu dabez. Sinadura horreek guztiek, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailera bialduko dabez orain, nebarreba biak barriro Bermeoko etxera ekarri daiezan itxaropenagaz. Sinadurak batzeaz gainera, Maitane eta Andoni seme-alabatzat hartu eben boliviarrumeen kontua dala eta, manifestazioa be egin zan Bermeon. Ume biak, Euskal Herrian agertu zan umeen trafiko sarearen kontuaren barruan dagoz, Mundakako beste familia baten umeagaz batera. Ekintza Sozialaren erantzunaren zain dagoz.

AGENDEA**BERMEO**

Erakusketa: Maite Solatxiren zeramikazko eskultureak dagoz ikusgai Nestor basterretxea kultur aretoan.

Lehiaketea: Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako kartel lehiaketaren epea gaur amaituko da. Beharrik liburutegian emon behar dira.

GERNIKA-LUMO

Erakusketa: Euskal Herri Museoa, Emakume Abertzale Batza alkartearen ganeko erakusketea zabaldu dabe.

Komertzioa: Gernikako Merkataritza Elkartuak taldean antolatutako maskotaren lehiaketaren epea bihar amaituko da.

MUNDAKA

Aratusteak: Aratustearen ganeko argazkiak batzen dabilz Katilotxu taldean.